

ERANSKINAK

1. Eranskina: Patxi Labordari elkarrizketa

SARRERA/ EUSKAL DANTZAK ETA UMEAK:

- Nola definituko zenituzke Euskal Dantzak?
- Izan duzu noizbait gai honen inguruko esperientziarik hurrekin?
- Uste duzu Haur Hezkuntzako umeak Euskal Dantzak ikasteko gai direla?
- Zertarako izan daitezke onuragarriak? Psikomotrizitateaz gain zerbaitetarako?

EUSKAL DANTZAK ETA HEZKUNTZA:

- Zure ustez, gaur egun, Hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta, batez ere, Euskal Dantzari?
- Euskal Dantzak Hezkuntzan ezartzeak merezi duela uste duzu?
- Horrela izatekotan, eremu ez-kurrikularrean (eskolaz kanpoko ekintzetan) edota eskola orduetan izan beharko litzateke?
- Eremu kurrikularrean ezarri ezker, kurrikulumak zehazten dituen edukiak lantzeko baliagarriak izan daitezke?
- Nola ezarriko zenituzke? Adibidez/ Ideiaren bat?

DANTZAREN ERAGINA

- Eraginik izango luke lehen urte hauetan dantzan ikasteak haurraren garapenean? Gainerako kideetatik desberdindu genitzakela uste duzu?
- Eta, herriko jaietako parte hartzean nabaritutako litzateke?

- Zergatik Euskal Dantzak eta ez, Taekwondo adibidez?
- Komentario gehigarriren bat

2. Unitate didaktikoa

IZENBURUA	BA AL DAKIGU EUSKAL DANTZAK ZER DIREN?
SAIOAK	10-12

TESTUINGURUA: Gelan lantzen diren eremu guztietan integratuko dira Euskal Dantzarekin erlazionatutako ariketak, horretarako txoko bat prestatuz (Dantza txokoa); ikasleek erritmoaren pertzepzioa hobetuko dute eta Euskal tradizioarekiko hurbilketa egin.

XEDEA: Euskal Herriko folklorea/dantza ezagutu eta bideo-zinta batean batu.

PROZESUA: Euskal Herriko musika ezagutu, Euskal Herriko mapa eta folkloreak ezaugarriak landu, Euskal Dantzak ikasi, Dantza tutoriala egin.

Helburuak eta adierazleak		Ebaluazioa
Helburuak	Adierazleak (lorpen-adierazleak)	
Mugimendua eta gorputzaren kontrol-ohiturak lantzea; bere gorputza ezagutzea eta honek ematen dituen aukerak zein diren erreparatzea.	Zer: Gorputzak ematen dituen aukerak ezagutu	% 15
	Nola: Euskal Dantzak oinarritzat hartuz	% 20
	Zertarako: Euskal Kultura ezagutzeko	% 15
Ingurune fisiko, soziala eta naturala (tradizioa) modu aktiboan aztertu eta esploratzea. Hau da,	Zer: inguruan berezkoak diren adierazpen kulturalak identifikatu	% 15

norberaren kultura-nortasuneko zenbait ezaugarri ezagutzea.	Nola: eremu bakoitzean gaiari lotutako ariketak eginez	%25
	Zertarako: inguruko kultura aberatsaz ohartzeko	%10

Edukiak		
Adierazpenekoa	Jarrerazkoa	Prozedurazkoa
Inguruan berezkoak diren adierazpen kulturalak. Euskal herriaren geografia.	Ahozko komunikazioa Azalpenak era antolatuan eman	Talde lanerako errespetua. Motibazioa

Hasierako jarduerak							
Deskribapena	Baliabideak	Denbora	Metodologia	Lekua	Produktuak	Adierazleak	Ebaluazioa
Euskal Dantzarien irudiak, Euskal musikaren zatiak... erakutsiko zaizkie ikasleei	Musika ekipoa, Plastifikatutako irudiak	X	Ikerketa	Gela	Ondorioak atera. Euskal kulturaren bereizgarriak identifikatu.	Euskal Tradizioaren (musikaren, dantzaren) ezaugarriak ezagutzen/gogoratzen ditu	%15
Haurrek proposatzen dituzten jardueren bidez (txaloak, keinuak...) Euskal musika ezberdinen erritmoa jarraitzeko ariketak egingo dira.	Musika ekipoa edo ordenagailua.	20 minutuko saio 2	Sormena	Gela	Musikaren erritmoaz konturatu. Taldean aritzen ikasi.	Emandako eredia jarraitzen du. Ideia berriak proposatzen ditu.	%15

Jarraipenerako jarduerak								
Arloa	Deskribapena	Baliabideak	Denbora	Metodologia	Lekua	Produktuak	Adierazleak	Ebaluazioa
Matematika	Musikaren erritmoa jarraituz, taldean, lekualdaketak eginez, irudi geometriko ezberdinak sortuko dira	Musika	30 minutu inguru	Talde lana	Psikomotrizitate gela	Irudi geometriko ezberdinak sortu.	Sortutako irudi geometrikoak ezagutzen ditu.	% 10
Geografia	Euskal herriko inguru geografiko bakoitzean Dantza ezberdinak egiten direla ikertu.	Euskal Herriko mapa. Etxetik ekarritako informazioa. Ordenagailua	15 minutu	Ikerketa	Gela (Dantza txokoa)	Euskal Herria ezagutu.	Bere burua mapan kokatzen du. Euskal Herria 7 probintzian banatuta dagoela nabari du.	% 10
Hizkuntza	“Zumarragako ezpata-dantza, magia dantza” ipuina kontatu eta komentatuko da.	Liburua	X	Debatea	Gela (Dantza txokoa)	Ipuina entzun ondoren, bertan gertatzen diren gauzei buruzko debatea egin.	Parte hartu du. Kondaira gehiago ezagutzeko jakinmina erakutsi du.	% 10
Plastika	Dantzarako beharrezkoa da edo bereizgarria den materiala sortu	Esku lanak egiteko material anitza.	15 minutu	Sormena. Lan pertsonala	Gela (Dantza txokoa)	Euskal Kulturarekin erlazionatutako esku lana.	Aurretiaz ikasitako teknikak erabili ditu esku lana egiteko.	% 10

Amaierako jarduerak							
Deskribapena	Baliabideak	Denbora	Metodologia	Lekua	Produktua	Adierazleak	Ebaluazioa
Adinera egokitutako eta txokoetako lanarekin lotutako Euskal Dantza ikasi.	Musika	20 minutuko 3 saio	Talde handian lana.	Psikomotrizitate gela	Euskal Dantza dantzatu.	Pausuak jarraitzen ditu.	% 10
Grabazio bat egingo da: dantzaren ezaugarriak azalduz, jatorrizko herriko adibidea erakutsiz eta dantza tutoriala eginez.	Kamera, musika, ordenagailua.	X	Talde-lana	Gela eta psikomotrizitate gela.	Egindako lan guztia batuz bideo bat grabatu	Azalpenak era ordenatuan ematen ditu.	% 20

BALIABIDEAK: argazkiak, musika ekipoa, ordenagailua, mapa, liburua, esku lanak egiteko materiala, kamera.

3. Irakasleei elkarrizketa

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?
2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.
3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?
4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakasleak orokorrean?

4. Irakasleei egindako elkarrizketen erantzunak

- **A irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?

Eskolaren arabera

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Merezi du, onuragarria izan daiteke hainbat eremu, arlo, eduki... landu daitezkelako.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Eskola, eremu- herri txiki eta euskaldun baten kokatuta dago eta guzti hau bermatzen dela uste dut, ez unitate gisa baina bai jarrera edo ekintza ezberdinen bidez.

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Nik bai, baina orokorrean irakaslegoak esango nuke ezetz.

- **B irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?

Bai, legezta dago eta helburu nagusietakoa da!

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Batetik, legezta dagoelako. Bestetik, gurea den zerbaiten transmisioa egin behar dugulako. Arlo eta esparruak oso zabaldik bait dira.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Bai, esparru guztietan zabal daitekelako

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Euskal Dantzak egin bakarrik? Honetan ere formatu behar banai, prest nago

- **D irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?

Nik uste dut garrantzia ematen diola baina gero ikastola bakoitzaren esku dagoela aurrera eramatea edo ez.

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Bai, merezi du. Gure ikastola Bilbon dago eta guraso gehienak erdaldunak direnez, Euskal Kultura bultzatu behar da.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Gure ikastolan proiektu bat aurrera eramateko adimen anitzetan oinarritzen gara. Adimen anitzen taula bat sortzen dugu eta bertan zer landuko dan sartzen dugu. Baita azken xedea zein izango den ere. Dena den, informazio interesgarria atera dezakegu unitate didaktiko horretatik.

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Ez. Ez dut uste txikitan euskal dantzak egiten nituenik ere. Zorionez, orduz kanpoko orduetan Euskal Dantzak egiteko aukera daukate gure txikitxuek.

- **E irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?

Ez, beharbada egun puntual batzuetan lantzen da baina ez da sakontzen ezta behar den moduan lantzen.

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Bai. Onuragarria izan daiteke bide batez euskal dantza eta euskal kultura lantzeaz aparte, beste arlo eta ariketak ere landu daitezkeelako.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Bai, hala ere arazo egoera baten badago oinarrituta, garrantzitsua izango litzateke egoeraren planteamendua. Hau da, irakasleak ikasleengan interesa bultzatu behar dau gai honekiko, ikasleak ikasteko gogoia izateko.

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakasleak orokorrean?

Bai, txikitatik dantza talde baten dantzatu dudalako. Gainerakoak uste dot ezetz.

- **F irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreaki?

Ez horrenbeste. Mugimendu eta erritmoaren lanketa bideratzen dabenez, ekintzak planteatzea positiboa da; eta gainera gure kulturari lotuta dagoen dantza edo musika tresnak jotzea baldin bada hobe.

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Noski baietz. Unitatea bera ez da zertan horretan oinarriturik egon, baina agian unitatean bertan adimen musikal edo gorputz kinestesikoa delakoaren atalean oinarrituz horrelako dantzak egin daitezke. Beti atera zeinke tarteren bat euskal abestiren, musikaren edo dantzaren inguruan ikasteko edota dantza praktikatzeko.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Holan bada bai, nire ustez arlo ezberdinak landu dira eta baina baliabide desberdinak erabili be. Ikasleen nahiak eta sormena be aintzat hartu dira.

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Bai, lau urte nebazanetik dantza taldean hasi nintzen eta horretan jarraitzen dot oraindik.

Egia esan, gutxik dantzatzen dogu

- **G irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreaki?

Gure kasu konkretuan ez diogu horren garrantzirik ematen, baina bai uste dut integratuago egon beharko zela

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Euskara astean egiten dan bezala, proiektuak ezartzean ondo egongo litzateke, txoko moduan esaterako. Horrela gure kulturaren atal bat dela gogorarazteko.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Gure unitate didaktikoak aurretik daude prestatuta eta danari bueltatxo bat eman beharko zitzaien, euskal dantzei leku bat egiteko. Behintzat, hilabetean behin.

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Nire kasuan ez, bai uste dut atal txiki batek formakuntza hori daukala. Ondo egongo litzateke dena den guztiok formakuntza hori jasotzea, ingelesaren formakuntza bezala.

- **H irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?

Gehiago eman behar zai

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Noski baietz, oso inportantea da herrialde bat ezagutzeko, bere ohiturak eta kultura ezagutu behar dugu.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Bai, erabilgarria da. Gainera oso ondo azalduta dago

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Egia esan..... EZ

- **I irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?

Ez. Zehar lerro moduan hainbat gai tratatzen ditugu baina garrantzi gehiago izan beharko lukeen.

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Guztiz ados nago. Euskal kulturaren igorle izatean gure ikasleek bertako hainbat ezaugarri/ohitura ezagutuko zituzketen. Agian batzuek etxean ezin izango dute horrelakorik jaso.

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Bai. Ikasleen mugimendua aintzat hartzen dutelako, arte hezkuntzak espazio gehiago izan beharko lukelako eta kasu honetan bultzatzen delako eta gure herrian dantza kultura asko dagoelako.

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Ez! Ez!

- **J irakaslea**

IRAKURRI UNITATE DIDAKTIKOA ETA ERANTZUN GALDEREI:

1. Zure ustez, Euskal Herriko hezkuntza sistemak beharrezko garrantzia ematen dio euskal kultura eta folkloreari?

Gehiago eman beharko zela uste dot

2. Gaur egun, proposatutakoa bezalako Euskal Kulturarekin lotutako unitate didaktikoak ezartzeak merezi duela deritzozu? Onuragarria izan daiteke? Arrazoitu.

Gauza asko daude lantzeko eta

3. Ereduko unitate didaktikoa lan egiten duzun zentroan aurrera eramateko bideragarria izan daitekeela uste duzu? Zergatik?

Egiten da baina jai egun berezietan soilik, eta normalean musika irakasgaiarekin lotzen dugu, beraz, horrelako unitate didaktikoak aurrera!

4. Unitate didaktikoa aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza (euskal dantzak) daukazu? Eta euskal irakaslegoak orokorrean?

Ez. Ez.

5. Animen anitzen taula

<u>ADIMEN INTERPERTSONALA</u>	<u>ADIMEN INTRAPERTSONALA</u>	<u>HIZKUNTZARAKO ADIMENA</u>	<u>ADIMEN LOGIKO-MATEMATIKOA</u>
<ul style="list-style-type: none"> - Elkarlanean dinamikak - Debateak 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal kulturaren bereizgarriak identifikatu eta gogoratu 	<ul style="list-style-type: none"> - “Zumarragako ezpata-dantza, magia dantza” liburua irakurri. - Grabaketan azalpenak emateko gaitasuna 	<ul style="list-style-type: none"> - Musikaren erritmoa jarraituz irudi geometriko ezberdinak (sekuentziak)
<u>ADIMEN IKUS-ESPAZIALA</u>	<u>ADIMEN MUSIKALA</u>	<u>ADIMEN KINESTESIKOA</u>	<u>ADIMEN NATURISTIKOA</u>
<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Dantzari lotutako esku lanak - Dantza tutorialen grabaketa 	<ul style="list-style-type: none"> - Dantza ikasi - Erritmo jolasak (keinuak erabiliz musikaren erritmoa jarraitu) 	<ul style="list-style-type: none"> - Dantza ikasi - Jarduera psikomotorrak musikaz baliatuz 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko inguru geografikoa ikertu - Esku lanak material birziklatuaz egin

